

Gai cum laude Nagore Ipiña doktoreari

2012/12/10

Tesiaren zuzendariak izan ziren **Pili Sagasta** eta **Iñaki Larrea** irakasleak. Epaimahaikideak, berriz, **Jasone Zenoz** (EHU), **Bego Pedrosa** (MU), **David Lasagabaster** (EHU), **Llorenç Comajoan** (UVic) eta **Do Coyle** (Aberdeengo Unibertsitatea). Bi aditu atzerritarrek, bestalde, egin zuten txosten arrazoitua: **Rick de Graff** katedraduna (Utrech-ko Unibertsitatea) eta **Philip Hood** doktorea (Nottingham Unibertsitatea).

Tesiaren gaia

Ezagutzaren Gizarteak eragindako aldaketak eta horiek hezkuntzan duten eragina kontuan hartuta, lan honek aztertu nahi du zer faktorek eragiten duten CLIL-POI testuinguru batean unibertsitateko ikasleen lankidetzazko idazketaren garapenean.

Lanak datu kuantitatiboen eta kualitatiboen bidez aurkezten ditu lankidetzazko idazketan ingelesarekiko zein IKTekiko jarrerek duten eragina. Modu esploratzaile batean tutoreak lankidetzazko idazketan duen eragina ere aztertzen da.

Egun hartako argazkiak [Flickr-en](#) ikus daitezke.

